

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRIETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda, eta kobratzeko moduan jartzea, borondatezko epean, 2025eko lehen seihilekoko ordainagiriak

Arrietako etxeak edateko urez hornitzearen tasaren 2025eko lehen seihilekoko errolda taxutu da eta hamabost egun baliodunez jendaurrean egongo da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita, interesa dutenek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek Arrietako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedienteak.

Ediktu honen bidez, erroldako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritik Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2025eko urriaren 2an hasi eta azaroaren 2an bukatuko da, bi egun horiek barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2025eko azaroaren 2an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideraturik ez daukatenei Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Arrietako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arrieta, 2025eko irailaren 2a

Lehendakaria

AITOR ALVARO RUIZ DE EGUILAZ